

Vatikanon aurkitu ditu. Non dago XVI. mendean Salamancako Unibertsitatean logika nominalistaren irakaskuntza abiatu zuen Pedro Donibane Garazikoaren *Expositio*-a? Hiru nafar bakarrik aipatzeko. Eta zenbat gehiago dago Valladolideko, Salamancako artxiboetan? Beltrán de Heredia edo Malaxechevarria irakurri, eta hotzikara ematen du.

Baina hori ere plan bat eta ekipo bat eskatzen duen egitekoa izango litzateke. Hain zuzen, Elías Amezagak egin duen lan pozgarriak eskatzen duen jarraipena. ■ *Joxe Azurmendi*.

Damua eta bonbak

«Jauna, jauna esaten duen oro ez da zeruetako erreinuan sartuko». Ezta ere «damutu naiz», «biolentziari uko egiten diot» aldarrikatzen duen orok ez du besterik gabe gizartean sartzerik izango. Obrak behar dira, obrak. Hauek erakusten bait dute damuaren egiazkotasuna. Gainera, zertan bekatu egin, hartan behar da damua erakutsi. Hauxe da CPko José Segura Sanfeliú katalanak Espainiako Kongresuko mahaian aurkeztu duena, zera proposatzerakoan: ETAK jarritako lehergailuak desaktibatzeraz goardiazibilek barik ETAKo «damutuek» edo gizartean berrintegratzea eskatu dutenek joan beharko luketela. Zergatik eta zertarako? Bistan da: Horretarako abildadeak erakutsiak dituztelako eta goardiazibilen bizitzak salbatzeagatik ez, edo horregatik bakarrik ez, baizik —eta batez ere— beren damua zintzoa eta osoa dela erakusteko. Obragabeko fedea hutsa da, izan ere. ■ *Joan Larrinaga*.

300.000 lagunen Ibilaldi nagusia

Urriaren 20an Bilbon egin zen estradizioen aurkako manifestaldia ikusgarria izan zen; aspaldiko urteotan Euskal Herrian egin den handienatzat jo dute gehienek. Zenbakitan bakoitzak bota ditu bereak: 20 mila, 30 mila, 60 mila, ehundaka mila...